

DAILY WATCH

Gaur egungo gizartean, denbora baliabide urria da. Errutinak aldatuz joan dira eta eskolaz kanpoko zein lanaz kanpoko ekintzak areagotuz. Gero eta jende gehiago animatzen da gauza gehiago egitera, jarduera gehiago egitera, baina hala ere, beti erabaki beharra dago, ez dagoelako denbora adinik. Garbi dago erabakiak hartu beharra dagoela une oro, momentu oro, edozein lekutan... Gauza asko nahi ditugu eta ezin ditugu guztiak aurrera eraman. Familiakoekin egon, kirola egin, irakurri, erlaxatu, etxeko lanak egin, janaria prestatu... Erlojua gora, erlojua behera.

Horrenbestez, denbora antolatzeko modu berri bat eskeini nahi dugu. Egun bat hogeita lau ordu ditu eta urte oso batez egunero 30 minutu galduz zure bizitzaren hilabete oso bat galdu egiten duzu. Hortaz, gure ideia denbora ehuneko ehunean aprobetxatzea da. Nahi dituzun jarduera guztiak egiteko aukera izango duzu, ez duzu erabaki behar, kirola, irakurketa, nahi dituzun pertsonekin egon... guztia egiteko denbora dago antolaketa egokia baliatuz. Produktua erloju bat izatea pentsatu dugu, edozein lekura eraman dezakezuna. Aitzitik, ez da edozein erloju izango zure bizitza hobetuko duen erlojua izango delako. Hitz gutxitan programatu dezakezu ahoz, eta honen eginkizun nagusia zure eguna antolatzea da. Inoiz sentitu izan baduzu ez duzula guztia egiteko denborarik ez da berriro gertatuko. Emaiozu aukera bat daily watchi eta mila aukera irabaziko dituzu. Zure bizitza aldatuko duen aukera da. Ez galdu denbora eta aprobetxa ezazu bizitza bakarria delako.

